

ARTOTERAPIARAKO GAILUA

Artoterapiarako gailu honekin, triste dagoena poztu egiten da, haserre dagoena alaitu egiten da eta kezkatu dagoenak, kezka alde batera uzten ditu. Ikastetxe guztietan egon beharko luke artoterapia gailu bat!

Lan indibidual eta talde lana nahasten dituen tailer oso lasaia, psikomotritate fina lantzeko ezin hobea.

Artotik eratorritako hitzak

Artoa (*Zea mays*), Amerikaren aurkikuntza ostean ekarri zen Europara. Europan bagenituen mota honetako beste zekaleak, hala nola, artatxikia, baina artoak bete zuen hauen lekua gure dietan.

Arto landareak, artasoroetan landatzen dira eta landare bakoitzak 10 artaburu ematen ditu. Artaburu bakoitza arto-hostoez bilduta egoten da eta puntan arto-bizarrak ditu. Artoak milaka arto-ale edukitzen ditu eta aleak kendu ostean, hau da, artoa aletu ostean, lokotsa geratzen da.

Artoa kanpotik ekarria izan den arren, oso gurea dugu, zeren taloak berarekin egiten dira eta nola ez, krispetak ere bai!

Materialak

- Ontzi bat.
- Artaburuak.
- Yogurt potoak (ikasle adina)

Artaburuak lortzea ez da erraza izaten gaur egun, aletutako artoa lortu daiteke eta tailerraren hasierako zatia (aletzea) ez egin.

Prozedura

Ikasleak borobilean bilduko dira, giro lasaia egotea komeni da. Bakoitzari yogur poto bat eta artaburu bat emango zaio eta artaburua aletzen hasiko dira.

Yogur potoa bete adina, erdiko ontzian hustuko dute.

Ontzia bete ostean ikasleek artoterapia gailua frogatuko dute.

Irakaslearentzat: aurpegi haserrea ipiniko die ikasleei eta eskua artoterapiagailuan sartzen duen bezain pronto, aurpegi alai ipiniko du.

Gero eskua berriro aterako du eta aurpegi haserrea ipini, baina azkenekoa baino alaiagoa, honela, eskua sartu eta ateratzen duen heinean gradualki aurpegia alaiagoa edukiko du.

Artoterapiagailua ere, gauzak izkutatu eta ikasleek eskuen pertzepzio bidez aurkitzeko ariketa bezala ere erabili daiteke.





Artoaren hiztegia

- Artasoro
- Arto-landarea
- Arto-hostoak
- Arto bizarrak
- Lokotsa
- Aletzea

Eztabaida

- Artoa bero ala hotz dago?
- Zer sentitzen duzu eskua artoan sartzean? Kilimak, erlaxapena?